

IRISGARRITASUNA

Arkitektura eta hirigintza oztopoak ezabatzeko xedez, Irisgarritasuna Sustatzeko Legea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 1997an. Helburu hori lortzeko, eraikin berrietan irisgarritasuna bermatu beharko da, bai eraikin barruan mugitzeko, bai kaletik eraikinerara sartzeko.

Mugikortasuna betiko mugatua duten pertsonentzako etxebizitza-erreserbak egitea agintzen du legeak. Babes ofizialeko etxebizitzetan, etxebizitza bat erreserbatu beharko da 25 etxebizitza bakoitzeko, eta libreetan, berriz, etxebizitza bat 50 etxebizitza bakoitzeko.